

# SANTA AGEDA



Izena: \_\_\_\_\_

1 Zorion etxe hontako denoi,  
Oles egitera gatoz,  
aterik ate ohitura zaharra  
aurten berritzeko asmoz.  
Ez gaude oso aberats diruz  
ezta ere oinetakoz,  
baina eztarriz sano gabiltza,  
ta kanta nahi degu gogoz.

2 Santa Ageda bezpera degu  
Euskal Herriko eguna,  
etxe guztiak kantuz pozteko  
aukeratua deguna.  
Santa maitea gaur hartu degu  
gure bideko laguna.  
Haren laguntzaz bete gentzake  
egun hontako jarduna.

3 Haurtxo txikiak atean gara  
non dago etxeko larrosa,  
atera bedi azkar leihora  
begiak ditzagun goza.  
Eguzki berak ikusi nahi du  
horren aurpegi panpoxa,  
nire laguna izan nahi badu  
betea nuke nik poza.

4 Mendi tontorrak elurrez zuri  
atari aldea lains hotza  
etxe hontako nausi jaunak  
urrezkoa du bihotza.  
Santa Agedak kendu digu gaur  
eskean hasteko lotsa  
dirurik ez  bada berdin zaiqu  
gizendutako bildotsa.